



Andoaingo Udala

Andoaingo Udala	
Kodea:	2026AAH20011
Zk / N°	2026/1718
Data / Fecha	2026/06/18
Ebazpena / Resolución	

ALKATEAREN EBAZPENA

Ikusirik Ondarreta Herri Eskolak 2025-2026 ikasturtean eskola kirolako programa garatzeko bere beharretarako langile egokiak kontratatzeko diru laguntza eskaera eragin duela.

Ikusirik Andoaingo Udalak 2026-2028 aldirako DPE-Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuela 2026-05-27ko 2026/1500 alkate-dekretuaren bitartez.

Ikusirik Jarduera Fisikoa eta Kirola saileko Teknikariak 2026ko maiatzaren 26an egindako txostena.

Ikusirik Udal Kontuhartzaileak 2026ko ekainaren 3an egindako txostena.

Horrenbestez, agiri honen bidez, honakoa

ERABAKI DUT

Lehenengoa: Onartzea, Andoaingo Udala eta Ondarreta Herri Eskolaren artean proposatutako lankidetzaz hitzarmenaren sinadura, zeinak honako ezaugarriak izango dituen:

Xedea: 2025-2026 Hitzarmen honen xedea 21.000,00 euroko diru laguntza emateko baldintzak eta konpromisoak ezartzea da, eta diru laguntza Ondarreta Herri Eskolako ikasleen berariazko beharrei erantzungo dien langile egokiak kontratatzearen ondoriozko gastuak ordaintzeko da.

Diru laguntza: 21.000,00 €.

Partida: 1000.481.342.00.05.2026.

Indarraldia: 2026

Bigarrena: Alkateari hitzarmen hau sinatzeko ahalmena ematea.

Hirugarrena: Onartutako diru kopuru honen %60, hau da, 12.600 euro hitzarmena sinatu ondoren Ondarreta Herri Eskolari ordaintzea onartzea.

Laugarrena: Hartutako erabakia Ondarreta Herri Eskolari jakinaraztea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez eta, halaber, hitzarmenaren bi ale bidaltzea, alkateak sinatuta.

Bostgarrena: Akordio honen berri ematea Kontuhartzaitza udal sailari.

Hala agindu eta sinatu dut Andoaingo sinadura datan.

Idazkaria

Alkatea



EKS | CSV: ESKUba45d945-4335-4c17-801c-ac3020465377

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910>